

EKARPENAK ETA GALDERAK ALKATEGAIENTZAT

Errefuxiatuak eta migratzaileak: konpromisoak hartzeko garaia

Errefuxiatu eta migratzaile gehienek egoera eutsiezina da.

Migrazioa gerrek eragiten dute, hala nola mendebaldeko transnazionalen herrialdeetako baliabideak espoliatzeak, desperekotasunak, genero-arrazoiek, eskubideen bortxaketak, klima-aldaketak...

Estatuek asiloaren edo herritartasunaren gainean erabakitzen dute, baina udalerriek bermatu behar dute harrera, beste erakunde batzuekin koordinatuta. Garaia da Euskal Herriko udalerriak "politika onaren" edo gauza publikoa elkartasunaren eta pertsona guztion gizarte-ongizatearen pareko bilakatzen duenaren buru izateko.

Ongi Etorri Errefuxiatuak plataformak udalerrri-mailako boterea deitu nahi du, errefuxiatu eta migratzaileen eskubideak leheneratuko dituzten konpromisoak egitura ditzan; sare alternatibo bat era dezan, toki-erakundeekin, gizarte-mugimenduekin eta herritarrekin batera, beste maila bateko erakundeen utzikeria ikusita pertsona horien beharrak betetzeko irtenbide zehatzak aurkitzea xede.

Geure udal-jarduketa egungo egoerari aurre egiteko, eta gure herriak epe luzerako elkartasunerako prestatzeko, gertatzen ari dena ez baita kontu zehatz bat. Gertakizunei aurre hartuta, gure udalerriak bertara iristen ari diren errefuxiatu eta migratzaileei harrera egiteko prestatu nahi ditugu, dagoeneko bertan daudenei arreta eskaintzeari utzi gabe.

Egungo egoera eragiten ari diren arrazoiek eragotzi ezin ditugun bitartean, herri gisa epe luzerako elkartasunerako prestatu behar dugu, bai eta gure udalerriak harrera-lurralde bilakatu ere.

ALKATEGAIENTZAKO PROPOSAMEN ETA GALDERA ZEHATZAK

1.- Erroldatzea etxebizitza finkorik gabe.

Egungo araudiaren arabera, Espainiako estatuan bizi den pertsona orok bizileku duen udalerrian erroldatzeko betebeharra du.

Hartuko duzu erroldatze-eskubidea egikaritzeko konpromisoa, alegia, egiaztaturiko etxebizitzarik izan gabe udalerrian daudela proba dezaketen pertsonak erroldatzekoa? Horien erregistroa onartuta Udalaren beraren gizarte-zerbitzuen helbide batean edo norbanakoen etxeetan, horrela haien giza eskubideak eta eskubide zibilak bermatuta egon daitezten?

BAI

EZ

ZERGATIK?

2.- Auzotasun-txartela.

Ados zaude errefuxiatu eta migratzaileei auzotasun-txartela ematearekin? Agiria eskatu ahal izango dute, erroldatu arte, legez kanpoko egoera administratiboan dauden pertsonak, udalerrian errotuta daudela probatzeko, eta, era berean, txartelaren titularrak hasiera-hasieratik jo ahal izateko udal-zerbitzu guztietara.

BAI EZ

ZERGATIK?

3. Informazio-zerbitzuak.

Hartuko zenuke konpromisoa berariaz gaitzeko diagnosi-, balorazio- eta orientabide-informaziorako zerbitzu integralak zure udalerrira iritsi berriak diren migratzaile eta errefuxiatuentzat? Edo, hala badagokio, zerbitzu horiek beste udal batzuekin erkidetuta gaitzeko? Bultzatuko zenuke, halaber, sentsibilizazioa udaletxean bertan eta gertuko erakundeetan —hezkuntza-, osasun- eta gizarte-arloko eragileak, judizialak...—, eta sustatuko zenituzke, gizarte-mugimenduarekin batera, udalerriko herritarrekin batera jarduteko parte-hartze eta elkarlanerako gertuko guneak?

BAI EZ

ZERGATIK?

4.- Harrera Integrala.

Alkate bazina, egingarritzat joko zenuke harrera integrala egitea emigrazioa jendarterako onura izan dadin, eragozpena beharrean? Hartuko zenuke konpromisoa errefuxiatu eta migratzaileei harrera egiteko, eta haien oinarrizko beharrak (ostatua, mantenua, arropa, osasuna, hezkuntza, arreta psikosoziala...) artatuak izan daitezen bermatzeko? Eta, horretarako, gune duinak gaitzeko, behar beste denboraz eta administrazioen artean koordinatuta?

BAI EZ

ZERGATIK?

5.- Inklusio, arreta eta prestakuntzarako ibilbide integralak.

Gure herrietan, migratzaileak babestuta egoteko antolatzen dira elkarren artean, eta, horregatik, iritsi berritan beren parekoak bilatzen dituzte, ongi etorriak sentitzeko. Jendartean parte hartzen ez dutenez, ghettoak sortzen dira. Alkate hautatzen

bazaituzte, zein kulturarteko gune ezarriko dituzu egoera hori saihesteko? Hartuko zenuke konpromisoa beharrezko baliabideak eskaintzeko (zuzenean edo hirugarrenen bidez) arreta- eta prestakuntza-ibilbide integralak sor daitezen? Laguntza psikosoziala, juridikoa edo lan-arlokoa, gure lurraldeko hizkuntza ofizialen doako ikaskuntza, eskolatzea, lanbide-heziketa, inklusioa komunitatean... barne?

BAI EZ

ZERGATIK?

6.- Etxebizitza eskuratzea.

Egingarritzat joko zenuke etxegabeei ostatu emateko eremuak gaitzea?

Hartuko zenuke konpromisoa migratzaile edota errefuxiatuei, hasierako harrerarako bitartekoak utzitakoan, etxebizitza bat eskuratzea erraztuko lieketen neurriak ezartzeko? Zure ustez, etxebizitarik ez izateak ezin du inola ere berekin ekarri seme-alabak gurasoengandik banantzea eta, alderantziz, premiazkotasunez bilatu behar dira bizigarritasun-irtenbide duinak?

BAI EZ

ZERGATIK?

7.- Giza salerosketaren biktimak.

Alkate bazina, hartuko zenuke konpromisoa giza salerosketaren biktimak antzemateko, udalerrian eragile eta agintari publiko guztiak gehiago inplikaturata?

BAI EZ

ZERGATIK?

8.- Indarkeria matxistaren biktimen arreta.

Alkate bazina, hartuko zenuke konpromisoa indarkeria matxistaren biktima diren emakume errefuxiatu eta migratzaileak berriz biktimizatu gabe artatzeko? Alde batera utzita indarkeria hori non jasan duten (sorterrian, handik honako bidean edo helmugan)?

BAI EZ

ZERGATIK?

9.- Aldi baterako egonaldia.

Udalerrri guztiek egokitzen dituzte beren baliabideak bertan aldi baterako daudenen (turistak, erromesak, biltzar handiak, kirol-ekitaldiak, kultura-ekitaldiak eta bestelakoak) ostatu-, aisialdi-, kultura-, mantenu-, informazio-beharra eta abar betetzeko. Orduan, zein da arrazoa hemen aldi baterako dauden migratzaileei harrera egiteko udal-baliabideak haiek ez artatzeko, jakinaren gainean Euskal Herria Europako gainerakora iristeko bitarteko lurraldea dela? Alkate bazina, hartuko zenuke konpromisoa aterpeak edo bestelako instalazioak egokitzeko Europarako edo beste toki batzuetarako bidean diren pertsona horientzat?

BAI EZ

ZERGATIK?

10.- Industria militarrik gabeko lurra.

Gerrek milioika heriotza eragiten dituzte, eta jendeak bere jatorrizko lurraldetik ihes egin behar izateko arrazoi nagusietako bat dira. Alkate bazina, zein neurri hartuko zenituzke zure udalerrria bakea aldarrikatzen duen eremu izan dadin? Hartuko zenuke konpromisoa udalerrriko lurra industria militarrik gabea izendatzeko? Erabiliko zenituzke baliabide instituzional guztiak gerrak eragiten dituen industria hori birmoldatzeko?

BAI EZ

ZERGATIK?

11.- Bizikidetzaren aldeko eta xenofobia eta arrazismoaren kontrako politikak.

Alkate bazina, hartuko zenuke konpromisoa bizikidetzaren aldeko eta diskriminazioaren, diskurtso xenofobo eta arrazisten, albiste faltuen eta gezurren, xenofobia eta xenofobia lokartuaren kontrako politikak sustatzeko? Sortuko zenituzke arrazismoaren kontrako protokoloak eta zurrumurruen kontrako programak, bai eta arazoaren erroaren eta elkartasunaren abantailen gainean informatzeko kanpainak?

BAI EZ

ZERGATIK?

12.- Profil etnikoa dela kausa nortasun-agiria eskatzeko debekua.

Alkate bazina, hartuko zenuke konpromisoa profil etnikoa dela kausa nortasun-agiria eskatzeko debekua ezartzeko? Bermatuko zenuke jardunbide diskriminatzaileak, Nazio

Batuen Eskubide Zibil eta Politikoen Nazioarteko Itunaren 26. artikuluan nahiz Giza Eskubideen Europako Auzitegian jasoak, debekatuta egotea sorterrria edo arraza direla eta egiten direnean? Hartuko zenuke konpromisoa tokiko poliziek demokraziari eta Giza Eskubideei buruzko berariazko ikastaroak egin ditzaten?

BAI EZ

ZERGATIK?

13.- Norbere egoera administratiboa alde batera utzita, auzotar guztiek kontsultak egin eta parte hartu ahal izateko mekanismoen ezarpena.

Alkate bazina, hartuko zenuke konpromisoa tokiko sareak sendotzeko, alegia, herritarrak parte hartzera bultzatzeko, erroldatze-kanpainak egiteko, etxebizitza-poltsak sortzeko, azpiegitura autogestionatuak ahalbidetzeko...? Hartuko zenuke konpromisoa, halaber, herritar guztien ahotsa entzutearren galdeketak egiteko, haien nazionalitatea edo egoera administratiboa alde batera utzita?

BAI EZ

ZERGATIK?

14.- Kargu publiko eta udaleko langileentzako prestakuntza.

Alkate bazina, hartuko zenuke konpromisoa zure ardurapeko langile guztiek, kargu publikoak barne, matxismorik, arrazismorik, kapazitismorik, homofobiarik, lesbofoabiarik eta transfobiarik gabeko funtzionamendua sustatuko duen nahitaezko prestakuntza jaso dezaten, genero-ikuspegian, arrazismoaren kontrakoan eta identifikazio sexu-afektiboaren aldekoan oinarritua?

BAI EZ

ZERGATIK?

15.- Aurrekontua.

Alkate bazina, udal-aurrekontuaren zein ehuneko erabiliko zenuke zure udalerriko errefuxiatu eta migratzaileen kolektiboaren harrerarako eta gainerako oinarrizko beharrak betetzeko?

%

ZERGATIK?

16.- Udalerrien arteko koordinazioa.

Alkate bazina, sustatuko zenituzke konpromiso hauek, eta partekatu zenituzke beste udalerrri batzuekin? Sortuko zenituzke, hala balegokio, udalerriko bertakoak baino harrera-gune handiagoak, eta interpelatuko zenituzke administrazioak giza eskubideen arabera joka dezaten? Ez soilik asilo/harreraren esparruan, ez bakarrik pertsona horiek gurera estortsiorik eta heriotzarik gabe iritsi ahal izateko bide seguruak ezartzeko; era berean, argi eta garbi jardun dezaten arazoaren jatorriaren gainean: gerrak, desparekotasunak, Lurraren beroketa, eskubideen bortxaketak...

BAI

EZ

ZERGATIK?